

Gure sexualitateak aske, edonon, edonoiz, edonola.

Aurtengoan ere, ekainak 28 gerturatzen dela ikusita **Komite Arroxak** Soraluzen hainbat ekimen antolatzea pentsatu du. Noski, pasa den urteko egitarau zabala berdintzea oso zaila zen, eta hori bagenekien hasieratik. Kolektibo oro pertsonaz osatzen da, eta iragan urtean geneuzkan denbora eta aukerak ez dira aurtengoak. Hala ere, nahiz eta egitaraua askoz xumeagoa izan, ez dugu nahi izan aukera eskapatzen utzi, aurtengoan eta gurean ere sexu askatasuna aldarrikatu eta homofobia, lesbofobia, transfobia eta bestelako fobia guztiek eragiten dutena salatzeke.

Aurtengoan azentua ikusgarritasunean, bisibilizazioan nahi genuen jarri. Gurea bezalako herrietan maritxu, bollera eta trans pertsonok izan dugun mugetako bat erreferentzia falta edo eskasia izan dira. Askotan gure sexu aukeretatik edo genero identitateetatik hitz egiten entzun izan ditugu asko eta asko, "alde" batzuk, "kontra" beste batzuk... Oro har, diskurtso ugari entzun izan ditugu. Batzuen partetik kondenazioarena, bekatuarena, gaixotasunarena edo zailtasunarena. Beste batzuen partetik tolerantziarena eta batzuetan, zorionez, errespetuarena ere. Baina askotan hitzak airean geratu zaizkigu, gure hitz propioak, gure esperientziak eta afektuak inon ez ditugulako islatuta ikusi.

Sexu eta genero identitatea eta gure aukerak errespetatuko dituen jendartea eraikitzeke beharrezkoa dugu aldeztu aurretik ikustaraztea, *ikusgarri*, ia-ia esan genezake *ukigarri* egitea. Erreferenteak biderkatu behar ditugu, eta gainera erreferente horiek halabeharrez anitzak eta dinamikoak behar izan, gure esperientzia eta bizipenak ere halakoak direlako. Ez ditugu gure irudi lauak eta estereotipatuak jaso nahi, azken finean ez ditugulako gure sexu eta genero aukerak identitate hertsia bilakatu nahi.

Hari horretatik tiraka milaka ekimen eta eguneroko jarrera proposatu daitezke. Guk momentuz hurrengo urtean zehar garatuko dugun bat aurkeztuko dizuegu, iragan urteko egitarauan ere presentzia izan zuena. Irailetik hasita, eta hilean behin, **Zinema Arroxa** izeneko ekimena jarri nahi dugu martxan. Hilabetean behin, Gay, Lesbiana, Transexual edo Transgenero gaiekin zerikusia duten pelikulak eman nahi ditugu, eta haien aitzakia aprobetxatu eztabaidatu, solastu eta elkar topatzeko.

Azken urteotan gero eta gehiago dira gai hauen inguruan egiten ari diren filma eta dokumentalak. Gero eta gay, lesbiana eta trans gehiago animatzen dira zinemaren bitartez beraien errealitate, bizipen eta fikzio anitzak plazaratzen. Eta gero eta gehiago dira ere, gay edo lesbiana izan gabe haien istorioak kontatu nahi dituzten zuzendariak. Askotan, pelikula hauek komunitate baten nahi eta desioak islatzen dituzte, bereziki pantailetan existitzeko beharra, ikusgai izateko beharra, erreferentziak izateko beharra.

Era berean, topaleku txiki bat ere izan nahi du **Zinema Arroxak**, Soraluzen Gay, Lesbiana eta Trans-entzako erreferentzi lekuri ez izatean, zaila egiten da askotan gure artean topatzea. Gune txikiak lortu eta irabazi beharra dago oraindik ere, gune seguru eta irekiak. Horretarako da ere ekimen hau.

Zinema Arroxa **ekainak 28an** aurkeztuko dugu **zineman**. Baina hori baino lehenago, **kontzentrazioa** burutuko dugu **plaza barrixan, 7:30ak** aldiari. Ondoren **Gaztetxian pikoteo** apur bat, tripa betetzeko. Zineman ekimenaren berri eman eta hasteko John Cameron Mitchell-ek zuzendu zuen **"Shortbus"** filma eskainiko dugu.

ekainak 28

gay, lesbiana eta trans askapen eguna

gure sexualitate askiak

edonon, edonoiz, edonola

ekainak 28, osteguna

19:30 Kontzentraziñua

Plaza Barrixan

20:00 Pikoteo-luntxa

gaztetxian


21:30 "Zinema arroxak"

ekimenen aurkezpena zinemaren

22:00 Pelikulia

"Shortbus" (J.C. Mitchell)





Shortbus. [John Cameron Mitchell, 2006]

Jatorrizko hizkuntza: ingelesa
Azpitululuak: gazteleraz

Eguna: 2012ko ekainak 28

Ordua: gaueko 10ak

Lekua: Zinema, Soraluze.

Sinopsia: New Yorkeko hainbat biztanle, beraien maitasun eta sexu kontuetan nahastuak dabiltzanak topo egiten dute klub edo txoko alternatibo batean, hain zuzen ere artea, musika, sexua eta politika nahasteagatik hiri osoan ezaguna dena.

Bertan sentimendu eta fereken eztanda sortuko da, beti bezala, balio-anitzekoa. Batzuetan alaia, besteetan tristeia. Batzuentzat erraza, besteentzat zaila. Denentzat intentsitate bizikoa.